

Euskal AEko esportazioak % 29,9 hazi ziren 2022ko urtarrilean, serie historikoan esportazio-bolumen handieneko urtarrila

2021ean, Euskal AEk Errusiatik egindako inportazioak petrolio-produktuen edo petrolioaren eratorrien arlokoak izan ziren batik bat, eta Ukrainaren kasuan ekilore-olio eta burdinaren eta altzairuaren galdaketaren arlokoak

Euskal AEko ondasunen esportazioak (2.241,1 milioi euro) % 29,9 hazi ziren 2022ko urtarrilean, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Horrela, Eustatek jasotako datuen arabera, serie historikoan esportazio-bolumen handieneko urtarrila izan da.

Esportazioen artean, gai energetikoen esportazioa nabarmen hazi zen (% 131,6), nahiz eta esportatutakoaren guztizkoaren % 7,4 baino ez den. Era berean, gai ez-energetikoen esportazioak hazkunde handia izan zuen, % 25,5ekoa.

Bestalde, inportazioak (2.012,8 milioi) % 47,8 hazi ziren, aurreko urtean kontabilizatutakoaren aldean, batik bat gai energetikoen % 62,3ko igoeraren eta gai ez-energetikoen % 44,1eko igoeraren ondorioz.

Horrenbestez, merkataritza-saldoa positiboa izan da (228,4 milioi) eta % 111,3ko estaldura-tasa sortzen du, 2021eko urtarrilean erregistratutakoa baino 15,3 puntu txikiagoa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	1.724.632	2.241.139	29,9	1.362.077	2.012.752	47,8
ENERGIAZKO GAIK	72.036	166.842	131,6	272.564	442.489	62,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	1.652.596	2.074.297	25,5	1.089.513	1.570.263	44,1
URTEKO METATUA	1.724.632	2.241.139	29,9	1.362.077	2.012.752	47,8
ENERGIAZKO GAIK	72.036	166.842	131,6	272.564	442.489	62,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	1.652.596	2.074.297	25,5	1.089.513	1.570.263	44,1
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	551.986	736.213	33,4	292.464	440.155	50,5
URTEKO METATUA	551.986	736.213	33,4	292.464	440.155	50,5
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	670.185	900.339	34,3	757.036	1.167.862	54,3
URTEKO METATUA	670.185	900.339	34,3	757.036	1.167.862	54,3
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	502.460	604.588	20,3	312.577	404.736	29,5
URTEKO METATUA	502.460	604.588	20,3	312.577	404.736	29,5

Data 2022ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Lurraldeak

Aldi horretan, **Bizkaiko** esportazio-jarduera nabarmendu zen; izatez, urte batetik bestera % 34,3ko igoerarekin, nagusi da ondasunen salmentan —900,3 milioi eurorainoko salmentak izan ditu—. Hil horretan, Bizkaian, arlo hauen ondorioz hazi ziren esportazioak: “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 32), “*Produktu mineralak eta energetikoak*” (% 122,9) eta “*Material elektrikoa*” (% 10,1).

Arabak, hazkundera antzekoa izan zen, % 33,4koa (736,2 milioi). Lurralde horretan, hazkundera arlo hauen igoeraren ondoriozkoa izan zen: “*Garraio-materiala*” (% 32,7), “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 63,3) eta “*Plastikoak eta kautxua*” (% 16,8).

Gipuzkoan, berriz, % 20,3ko hazkundera (604,6 milioiko esportazioa) arlo hauen igoeraren ondoriozkoa izan zen: “*Material elektrikoa*” (% 25,0) eta “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 34,8). Aitzitik, “*Garraio-materiala*” arloko esportazioek % 13,8 egin zuten behera.

Inportazioei dagokienez, **Bizkaian** % 54,3 egin zuen gora eta 1.167,9 milioi euroko balioa duten ondasunak inportatu zituen, batez ere “*Produktu mineralak eta energetikoak*” (% 62,1 eta aurreko urtean baino 175,6 milioi gehiago), “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 58,1) eta “*Produktu kimikoak*” (% 169,5).

Arabak jarraitzen du, 440,2 milioi eurekin eta % 50,5eko igoerarekin. **Arabako** igoera hiru arlotako inportazioaren emaitzakoa da batik bat: “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 118,5), “*Material ete ekipamendu elektrikoa*” (% 41,3) eta “*Garraio-materiala*” (% 28).

Azkenik, **Gipuzkoak** joan den urteko hil berean baino % 29,5 gehiago inportatu zuen, eta 404,7 milioi euroko ekarpena egin zion Euskal AEko inportazioaren zenbatekoari. “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 58,6), “*Material elektrikoa*” (% 19,5) eta “*Garraio-materiala*” (% 7,9) arloak izan ziren hiru arlo inportatzaile nagusiak.

Jarduera-adarrak (A 86)

Euskal AEren osotasunerako **jarduera-adar** garrantzitsuenak aztertuta, eta esportazioei dagokienez, “*Ibilgailu motordunen fabrikazioa*” arloaren igoera nabarmentzen da (% 27,0), batez ere Araban (% 34); izatez, aurreko urteko datuen aldean dagoen 123,8 milioi euroko igoeratik, 114,8 milioi euro lurralde horri dagozkio; Gipuzkoan ere datu positiboak erregistratu dira, 9,1 milioi euro gehiagorekin (% 14,1).

“*Kokeriak eta petrolio-fintzeak*” arloan igoera oso handia izan da (% 130,4), eta igoera hori Bizkaian metatzen da, lurralde horrek 164,5 milioi euroko esportazioa egin baitu.

“*Siderurgia*” arloarekin lotzen diren produktuak 92,7 milioi eurotan hazi dira 2021eko hil beraren aldean. Hazkunde hori oso modu parekatuan banatzen da hiru lurraldeen artean: Arabak 30,9 milioi gehiago esportatu ditu, Bizkaia 30 milioi gehiago eta Gipuzkoak 31,8 milioi gehiago.

Era berean, Gipuzkoan nabarmen egin du gora “*Erabilera orokorreko materiala*” arloak, 124,2 milioi euroko esportazioekin —Euskal AEren osotasunean adar horrek izan duen % 19,0ko igoerari ekarpen erabakigarria egiten dio Gipuzkoak—.

Inportazioei dagokienez, aditzera eman behar da adarrik garrantzitsuena, “*Erauzketa- eta petrolio-industriak*”, % 48,1 hazi dela; bigarren garrantzitsuena, “*Produktu siderurgikoak*”, % 103 hazi dela; eta hilabete honetan hirugarren garrantzitsuena, “*Ibilgailu motordunen fabrikazioa*”, % 39,6 hazi dela. Era berean, oso igoera handia izan du “*Pintura eta bestelako azken kimika*” jarduera-adarrak (% 170,0), ia osorik Bizkaian, 97 milioi euro inportatu baitira.

Partidarik garrantzitsuenak

Xehetasunetara jaitsiz, esportazioen urtetik urterako hazkunderik handienak arlo hauetan izan dira: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 126,2 eta 85 milioi euro gehiago), “*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak*” (% 85,2 eta 25,3 milioi gehiago) eta “*Animalia- edo landare-jatorriko koipeak eta olioak, industria-erabilera teknikorako*” (122,9%) —igoera, osorik, Bizkaiko lurraldeari zor zaio—.

Era berean, automobilgintzaren sektorearen barruan sartzen diren produktuen esportazioak nabarmen hazi dira, eta horien artean nabarmentzen dira “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 24,1 eta 44,5 milioi gehiago), “*Salgaiak garraiatzeko automobilak*” (% 25,8 eta 35,9 milioi gehiago), “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (% 27,5 eta 35,1 milioi) eta “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 23,1 eta 18,6 milioi euro gehiago). Sektore horren barruan nabarmentzekoa da, halaber, “*10 pertsona edo gehiago, gidaria barne, garraiatzeko automobilak*” (% 136,7) —Gipuzkoatik 10,8 milioi euroko esportazioa—. Aitzitik, behera egin du “*Burdinbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak*” adarra (-% 61,4).

Urtarrilean, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak*” arloko inportazioak % 17 jaitsi dira tonatan, baina % 37,5 igo dira eurotan. Antzeko zerbait gertatzen da “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” arloarekin, 42,8 milioi euroko erosketak egin ziren eta % 312,6 hazi zen eurotan; edonola ere, ez du inolako aldaketarik pisuan. Nabarmentzekoa da, halaber, “*Petrolioaren olio finduak*” arloan izandako igoera, bai eurotan (% 184,2), bai tonatan (% 77,2) —arlo horretan inportatutakoak 62,4 milioi euroko balioa izan zuen— eta “*Biodiesela eta haren nahasteak*” arloan izandako igoera, 2022ko urtarrilean 41,3 milioi inportazioa.

Aitzitik, beherakadak izan dira “*Aluminio, gordinean*” partidan (-% 9,9) eta “*Soja-babak, baita hautsiak ere*” partidan (-% 49,5).

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Urtarrila 2022

	2021	2022	2022	2022/2021 (%)
Guztira	1.724.632	2.234.375	100	29,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	184.414	228.941	10,2	24,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	139.500	175.446	7,9	25,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	127.680	162.790	7,3	27,5
Petrolioaren olio finduak	67.538	152.746	6,8	126,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	80.717	99.325	4,4	23,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	29.751	55.095	2,5	85,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	37.784	46.143	2,1	22,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	25.369	41.054	1,8	61,8
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	16.099	35.888	1,6	122,9
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	12.131	29.740	1,3	145,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	15.302	26.767	1,2	74,9
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	18.998	26.234	1,2	38,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	20.012	25.830	1,2	29,1
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	23.031	23.654	1,1	2,7
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	17.112	23.003	1,0	34,4
Landu gabeko aluminioa	15.635	21.957	1,0	40,4
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	11.781	21.347	1,0	81,2
Berotan ljeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	8.982	21.150	0,9	135,5
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	22.769	20.715	0,9	-9,0
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	17.376	20.298	0,9	16,8
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak...	13.958	17.892	0,8	28,2
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabeko, bobina edo orritan	14.000	17.786	0,8	27,0
Ardoa, mahats freskoarena	14.157	16.820	0,8	18,8
Kobreko zakarrak eta hondakinak	12.407	16.407	0,7	32,2
Xaffen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	7.564	16.327	0,7	115,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bezeroak, helmuga-jatorria

2022ko urtarrilean, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Herbehereak eta Erresuma Batua) izan ziren Euskal AEren bezero nagusiak, esportazioen balioaren erdia baino gehiago bildu baitzuten, % 53 hain zuzen ere. Horietako hiru EB-27ko kideak dira, eta esparru horrek biltzen ditu Euskal AEko esportazioen % 65,5.

Herrialde hornitzaile nagusiak hauek izan dira: Alemania (286,4 milioi), Frantzia (193,8 milioi), Txina (182,6 milioi), Errusia (136,7 milioi) eta Erresuma Batua (109,2 milioi). Ameriketako Estatu Batuekin batera (102,4 milioi), inportatutako guztiaren % 50,2 biltzen dute.

2021EAN ERRUSIAREKIN IZANDAKO MERKATARITZA HARREMANAK

INPORTAZIOAK

2021. urtean, Errusiatik inportatutako ondasunak Euskal AEtik guztira inportatutakoaren % 6,5 izan ziren. 1992an, % 3,0 ziren, eta % 4 inguruko ehunekoan mantendu ziren 2002ra arte. Urte horretatik aurrera, % 10eraino hazten hasi ziren 2004an, eta 10 urtez mantendu ziren % 15 inguru, edo % 15 baino pixka bat gehiago. 2014tik aurrera, ehuneko hori jaisten hasi zen, eta bi digituak galdu zituen.

Errusiako inportazioak dibertsitate urrikoak izan dira —hori dute bereizgarri—, eta muga-zergen kapitulu hauetan bildu dira beti:

a) “Petrolio-produktuak” (2021ean inportatutako guztiaren % 85,8); ia beti % 50 baino gehiago izan dira, eta 2005ean jada % 80 baino gehiago izan ziren. Hortik aurrera, maila horretan mantendu da, 2015., 2017. eta 2018. urteetan izan ezik.

Kapitulu horren barruan, eta muga-zergen partiden xehetasunari erreparatuta, adierazi behar da inportazio-sailkapeneko lehenengo hiru posizioak kapitulu horretako partidek hartzen dituztela. Hala, lehenik eta behin, “Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak” (701,6 milioi euro) agertzen dira, hau da, Espainiak herrialde horretatik inportatutako produktu horren guztizkoaren % 46,5, 1.647.374 tona; ondoren “Petrolioaren olio finduak” agertzen dira (364,5 milioi eta 865.503 tona), kasu horretan funtsean “Gasolia” (240,4 milioi eta 500.755 tona) eta “Fuela” (124,1 milioi eta 364.747 tona). Hirugarren postuan dago “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak”, zehazki “Gas Naturala” (103,2 milioi eta 282,8 tona).

b) “Galdaketa, burdina eta altzairuzko produktuak” (2021ean % 6,5); ehuneko hori, urte askotan, % 10etik gorakoa izan da, eta, zehazki, 1994 eta 2005 bitartean, Errusiatik zetozen guztizko inportazioen % 14 baino gehiago izan dira.

Analisian sakonduz, ikus dezakegu kapitulu horretako partidarik garrantzitsuena dela “Burdinazko produktuak, purutasun handiko burdina eta burdina-mineralak zuzenean murritzuz lortuak, pusketan, pelletetan edo antzeko formetan” partida (28,5 milioi), eta, ondoren, “Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra” (21,0 milioi eta Espainiako guztizkoaren % 47,4 da) eta “Burdinurtu gordina eta ispilu-burdinurtua, lingoteetan, blokeetan edo gainerako forma primarioetan” (16,4 milioi eta Espainiako guztizkoaren % 100).

c) “Kautxua eta kautxuzko manufakturak” (2021ean % 3,2); zehazki, “Kautxu sintetikoa forma primarioetan edo plaketan, orrietan edo zerrendetan” (43,4 milioi eta Espainiako guztizkoaren % 88,6).

Muga-zergen hiru kapitulu horiez gain, eta garrantzi erlatiboari jarraikiz, aipatu behar dira “Aluminio gordinak” inportazioak (14,3 milioi) eta “Karbonoa —kezko beltzak eta beste karbono-forma batzuk—” inportazioak (13,2 milioi).

Euskal AEk oso protagonismo handia du zenbait produktutan, Errusiatik datozen Espainiako inportazio guztiekiko. Hala, gure autonomia-erkidegoak Espainiako produktu hauen inportazioaren % 90 baino gehiago biltzen du: “Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulaketarako barra hutsak”, “Gainerako aleazio-altzairuen produktu ijeztu lauak, < 600 mm”, “Beira flotatua eta alde batetik edo bietatik arbastatutako edo leundutako beira, plakatan edo orritan, baina beste modu batean landu gabe”, “Soja-olioa”, “Korindoi artifiziala, aluminio hidroxidoa eta oxidoa”, “Berilioa, kadmioa, kromoa, germanioa, banadioa, galioa, hafnioa, indioa, niobioa, renioa, talioa eta horien hondakinak”. Bestalde, Euskal AEk “Titanioa eta haren manufakturak, hondakinak barne” arloko esportazioen % 73,8 hartzen ditu.

Errusiako inportazioen rankina Euskal AEra eta Espainiara, muga-zergeren partiden arabera (p). 2021

Izendapena	Euskal AE (milaka euro)	muga-zergeren patida osoaren gaineko %	Espainia (milaka euro)	% Euskadi / Espainia
Inportazioak guztira	1.378.775	6,5	6.033.634	22,9
1 Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	701.645	22,3	1.509.929	46,5
2 Petrolioaren olio finduak	364.490	37,3	2.088.759	17,5
3 Petroliogasa eta gainerako hidrokarburu gaseosoak	103.173	29,0	1.216.028	8,5
4 Kautxu sintetikoa forma primarioetan edo plaka, hosto edo zerrendetan	43.387	35,1	48.988	88,6
5 Burdinazko produktuak eta purutasunezko burdina > edo = % 99,94 pisuan, zati, pellet edo antzekoetan	28.493	60,5	135.050	21,1
6 Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarra	21.025	4,4	43.853	47,9
7 Fundizio gordin eta espekulazio-fundizioa, lingote, bloke edo gainerako forma primarioetan	16.372	22,6	16.372	100,0
8 Landu gabeko aluminioa	14.305	6,1	52.071	27,5
9 Karbonoa (ke-beltzak eta beste karbono-forma batzuk)	13.182	23,1	38.002	34,7
10 Harrikatzeko, lignitozko edo zohikatzezko koke eta erdikokeak, baita aglomeratuak ere: erretorta-ikatz	12.912	80,4	21.787	59,3
11 Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	9.741	1,7	16.757	58,1
12 Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko tarteko produktuak	7.092	11,2	31.302	22,7
13 Zur xafiatua, kontratxapatua edo geruzatua	5.623	34,9	16.562	34,0
14 Soja-olioa	3.402	29,1	3.402	100,0
15 Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	2.905	2,9	2.924	99,4
16 Titanioa eta bere manufakturak, hondakinak barne	2.769	20,6	3.753	73,8
17 Korindoi artifiziala, aluminio oxidoa eta hidroxidoa	2.616	11,9	2.707	96,6
18 Garia	2.572	4,8	18.295	14,1
19 Nikel gordin aleatua edo aleatu gabea	2.119	3,3	5.318	39,9
20 Arrain fresko, hoztu edo izoztuaren xerrak	1.947	6,2	24.875	7,8
21 Beira flotatua eta alde batetik edo bietatik arbastatutako edo leundutako beira, plakatan edo orritan, baina bestela landu gabe	1.886	8,3	2.004	94,1
22 Ferroaleazioak	1.786	1,1	18.333	9,7
23 Ongarri mineral edo kimiko nitrogenatuak	1.612	10,4	41.783	3,9
24 Aleazio-altzairuen produktu ijeztu lauak, 600 mmtako edo gehiagoko zabalerakoak	1.022	11,1	1.022	100,0
25 Berilioa, kadmioa, kromoa, germanioa, banadioa, galioa, hafnioa, indioa, niobioa, renioa, talioa eta horien hondakinak	1.015	24,1	1.028	98,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

ESPORTAZIOAK

2021. urtean, Errusiara egindako ondasunen esportazioak Euskal AEk egindako esportazio guztien % 0,98 izan ziren. Esportazioetan ere dibertsitate urria da bereizgarri, 2021. urtean muga-zergeren hiru kapitulu handitan bildu baitira:

a) “Automobilak” (2021ean esportatutako guztiaren % 35,9).

Esportazio-sailkapenaren lehen postuan, kapitulu horretako partida bat dago: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (76,8 milioi euro), hau da, produktu horren % 92,6 Euskal AEtik esportatzen

da. Era berean, adierazgarria da “Automobilentzako zati eta osagarriak” atalari dagokiona (11,4 milioi).

b) “Makina, aparatu eta artefaktu mekanikoak eta horien zatiak” (2021ean % 27,9).

Kasu horretan, ikus daiteke hogeita bost partidarik garrantzitsuenen arteko hamaika kapitulu horretakoak direla; horien arteko nagusiena da “Metal-harroketak bidez lan egiten duten tornuak eta torneaketa-zentroak” (13,0 milioi, Espainiatik esportatutakoaren % 99,8), eta, gero, “Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako” (11,3 milioi), “Jasotze-makinen edo -aparatuen zatiak, pilotzeko eskorgak, igogailuak, berdintzeko makinak, hondeamakinak, zulatzeko makinak...” (7,5 milioi), “Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko eta etiketatze makinak” (7,2 milioi) eta “Makina-erremintarako zati eta osagarriak” (5,9 milioi, Espainiako esportazioaren % 81,1), besteak beste.

c) “Kautxua eta kautxuzko manufakturak” (2021ean % 20,0)

Funtsean, “Kautxuzko pneumatiko berriak” dira (48,5 milioi), batez ere “Eraikuntzarako, meatzaritzako edo mantentze-lan industrialerako ibilgailuak eta makinak” (20,3 milioi) eta “Autobusak edo kamioiak” (14,6 milioi) erabiltzen dituztenak.

Errusiara esportazioen rankina Euskal AEtik eta Espainiatik, muga-zergeren partiden arabera (p). 2021

Izendapena	Euskal AE (milaka euro)	muga-zergeren patida osoaren gaineko %	Espainia (milaka euro)	% Euskadi / Espainia
ESPORTAZIO GUZTIEN	251.567	1,0	2.213.263	11,4
1 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	76.806	3,7	82.917	92,6
2 Kautxuzko pneumatiko berriak	48.497	4,6	82.229	59,0
3 Metalaren abio bidez lan egiten duten tornuak eta torneaketa-zentroak	13.031	11,7	13.057	99,8
4 Automobilentzako zati eta osagarriak	11.411	0,7	71.895	15,9
5 Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	11.294	1,9	20.809	54,3
6 Jasogailuen, pilotzeko organen, igogailuen, nibelagailuen, hondeamakinak eta ferforatzeko makinak zatiak...	7.487	7,4	9.380	79,8
7 Ontziak eta paketatze aparatua garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	7.214	3,7	23.642	30,5
8 Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	5.884	3,7	7.259	81,1
9 Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk	5.141	14,8	10.225	50,3
10 Binilo kloruroaren edo beste olefina halogenatu batzuen polimeroak, forma primariotan	3.445	6,6	3.486	98,8
11 Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	3.329	1,6	6.255	53,2
12 Transformadore elektrikoak, bihurtzaileak eta erreaktantzia-bobina	3.109	1,3	4.202	74,0
13 Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	2.813	0,9	3.088	91,1
14 Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	1.823	1,3	4.272	42,7
15 Bero bidez materialak tratatzeko aparatua	1.799	1,3	12.062	14,9
16 Segurtasun-metxak; kordio detonatzaileak; pizgarriak eta kapsulak, fulminanteak; sukoiak; detonagailu elektrikoak	1.791	4,0	1.791	100,0
17 Lurra prestatzeko edo hazteko nekazaritzako, baratzeko edo basoko makinak eta tresnak	1.725	4,1	3.580	48,2
18 Beste manufaktura batzuk gogortu gabeko kautxu bulkanizatutakoak	1.696	1,1	2.839	59,7
19 Adreiluak, baldosak eta antzeko gainerako eraikuntzako zeramika-piezak, erregogorrak (silize-lur fosil edo antzekoak izan ezik)	1.610	3,7	2.354	68,4
20 Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorrak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihizatzea, zerratzea, arrabotzea, harriz lantzea, zulatzea...)	1.593	6,6	2.680	59,4
21 Metala lantzeko mekanizazio-zentroak	1.587	1,9	3.402	46,7
22 Aire- edo huts-ponpak, aire- edo gas-konpresoreak, haizagailuak, ke-kanpaiak eta segurtasun biologikoko esparruak	1.557	3,0	6.003	25,9
23 Xafren bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-etak, burdinako edo altzairuko antzeko	1.437	0,8	3.225	44,5
24 Azido nukleikoak, horien gatzak eta gainerako konposatu heteroziklikoak	1.391	3,0	4.899	28,4
25 Bisagrak, gurrupak, zintzilak, ibitura automatikoak eta metal arrunteko gainerako hornigaiak, burdinaria eta antzekoak	1.381	1,7	2.569	53,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Marxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2021EAN UKRAINAREKIN IZANDAKO MERKATARITZA HARREMANAK

INPORTAZIOAK

2021. urtean, Ukrainatik egindako ondasunen inportazioak Euskal AEn inportazio guztien % 0,76 izan ziren. Ehuneko hori % 1etik beherakoa izan da beti, eta 2020an izan da handiena (% 0,85).

Ukrainako inportazioak, Errusiakoak bezalaxe, dibertsitate urrikoak izan dira —inportazio horiek hori dute bereizgarri—, eta muga-zergen bi kapitulu hauetan bildu dira beti:

a) “Animalia- edo landare-jatorriko koipeak eta olioak” (2021ean inportatutako guztiaren % 52,7). 2010etik inportatutakoaren % 50 baino gehiago izan da, 2013. eta 2018. urteetan izan ezik. Kapitulu horren barruan eta muga-zergen partidei erreparatuta, inportazio osoa produktu mota bakar batean biltzen da: “*Ekilore-olioa*” (84,5 milioi euro), hau da, gure erkidegoak produktu horretatik inportatutako guztizkoaren % 80,9, guztira 74.601 tona.

b) “Galdaketa, burdina eta altzairuzko produktuak” (2021ean % 41,3); ehuneko hori, urte askotan, % 50etik gorakoa izan da, zehazki, 1994 eta 2000 bitartean. Kapitulu horretako partida garrantzitsuenen artean daude “*Burdinurto gordina eta ispilu-burdinurtua, lingoteetan, blokeetan edo gainerako forma primarioetan*” (30,7 milioi, Euskal AEk produktu horretan inportatutako guztizkoaren % 42,3 eta Espainiako guztizkoaren % 64,3), “*Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, > 599 mm*” (28,7 milioi) eta “*Ferroaleazioak*” (4,5 milioi).

Muga-zergen bi kapitulu horiek alde batera utzita, garrantzi erlatiboa eman behar diegu honako gai hauen inportazioei: “*Soja-babak, baita hautsiak ere*”, 3,6 milioi, hau da, Espainiako guztizkoaren % 100; “*Zur txapatua, kontratxapatua edo estratifikatua*” (2,0 milioi); “*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*” (1,5 milioi); eta “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko tarteko produktuak*” (1,4 milioi), Espainiako guztizkoaren % 100 ere bai.

Ukrainako inportazioen rankina Euskal AEra eta Espainiara, muga-zergeren partiden arabera (p). 2021

Izendapena	Euskal AE (milaka euro)	muga-zergeren patida osoaren gaineko %	Espainia (milaka euro)	% Euskadi / Espainia
Inportazioak guztira	160.215	0,8	1.547.724	10,4
1 Ekllore, karkamo edo kotoi olio, baita finduta ere, baina kimikoki aldatu gabe	84.452	80,9	422.147	20,0
2 Fundizio gordina eta espekulazio-fundizioa, lingote, bloke edo gainerako forma primarioetan	30.677	42,3	47.698	64,3
3 Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdina edo altzairuzkoak > 599 mm	28.759	4,9	93.753	30,7
4 Ferroaleazioak	4.541	2,9	25.736	17,6
5 Sojababak, baita hautsiak ere	3.588	0,7	3.589	100,0
6 Zur xafiatua, kontraxapatua edo geruzatua	1.962	12,2	3.232	60,7
7 Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	1.527	1,7	2.083	73,3
8 Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko tarteko produktuk	1.372	2,2	1.372	100,0
9 Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	972	0,5	972	100,0
10 Aleatutako gainerako altzairuen produktu ijeztu lauak > 599 mm	754	0,5	1.781	42,3
11 Hidrokarburoen deribatu sulfonatuak, nitratuak edo nitrosatuak, baita halogenatuak ere	264	17,3	652	40,5
12 Lurra, harria edo beste materia mineral solido bat bahetzeko, birrintzeko, oratzeko edo aglomeratzeko makinak	182	0,8	283	64,3
13 Korindoi artifiziala, aluminio oxidoa eta hidroxidoa	166	0,8	251	65,9
14 Eraikuntzarako arotzeriako piezak: leihoak, ateak, markoak, zutoinak, habeak, enkofratuak, oholtoak...	115	1,0	677	17,0
15 Tomate prestatuak edo kontserban	114	28,3	114	100,0
16 Burdinazko edo altzairuzko granailak eta galdaketa-hauts landugabe	94	0,3	340	27,7
17 Xafiatzeko eta kontraxapatzeko orriak eta luzetara zerratutako gainerako zurak, < edo = 6 mm-ko lodierakoak. :	91	2,4	17.483	0,5
18 Luzetara zerratutako edo arbastatutako zura, > 6 mm-ko lodierakoa	78	0,2	4.135	1,9
19 Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartutxoak eta gainerako munizioak, jaurtigaiak eta horien zatiak	70	0,3	70	100,0
20 Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk	66	0,0	66	100,0
21 Ehundu gabeko, estalitako edo gaineztaturiko oihala, baita harizpi sintetiko ere	65	0,8	66	99,3
22 Karburoak, nahiz eta osaera kimiko definitukoak ez izan	50	0,8	51	97,8
23 Zurezko, zurezko, banbuzko, ratanezko, plastikozko edo metalezko beste altzari batzuk eta horien zatiak	47	0,1	6.064	0,8
24 Ortopediako artikulak eta aparatuak	31	0,1	31	100,0
25 Urratzaille naturalek edo artifizialek osatutako harriak eta antzeko gaiak birrintzeko, leuntzeko, artezteko, mozteko eta abar	26	0,2	76	34,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEk metatzen du orain arte aipatu ez diren zenbait produktutan Espainiak Ukrainatik egindako inportazioen % 90 baino gehiago: “*Burdinbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak*”, “*Prestatutako edo kontserbako tomateak*”, “*Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartutxoak eta gainerako munizioak, proiektilak eta horien zatiak*”, “*Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk*”, “*Ortopediako gaiak eta aparatuak*”, “*Ehundu gabeko oihala, estalia edo gainestalia, baita filamentu sintetiko ere*” eta “*Karburoak, nahiz eta osaera kimiko definitukoak ez izan*”.

ESPORTAZIOAK

2021. urtean, Ukrainara egindako ondasunen esportazioak Euskal AEk egindako esportazio guztien % 0,16 izan ziren. Ukrainarako esportazioetan dibertsitate urria ere da bereizgarri, 2021. urtean muga-zergeren bi kapitulu handitan bildu baitira:

a) “Automobilak” (2021ean esportatutako guztiaren % 29,0).

Muga-zergeren partiden sailkapeneko lehen postuan, Errusiaren kasuan bezalaxe, “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” daude (8,9 milioi euro). Kapitulu horren barruan daude “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (1,7 milioi), “*Motorrik gabeko bizikletak eta gainerako belozipedoak*” (0,6 milioi euro) eta “*Salgaiak garraiatzeko automobilak*” (0,5 milioi).

b) “Makina, aparatu eta artefaktu mekanikoak eta horien zatiak” (2021ean % 26,1).
Partiden xehetasunetara joz gero, ikusiko dugu Ukrainara esportatutako hogeita bost partidarik garrantzitsuenetako zortzi kapitulu horretakoak direla, nagusienak dira: “*Nekazaritzako, baratze edo basogintzako makinak eta artefaktuak, lurzorua prestatzekoak edo laborantzarakoak*” (2,7 milioi), “*Ontziak eta paketatze aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko eta etiketatze makinak*” (2,0 milioi), eta “*Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako*” (1,1 milioi).

Ukrainara esportazioen rankina Euskal AEtik eta Espainiatik, muga-zergen partiden arabera (p). 2021

	Izendapena	Euskal AE (milaka euro)	muga-zergen patida osoaren gaineko %	Espainia (milaka euro)	% Euskadi / Espainia
	ESPORTAZIO GUZTIEN	40.646	0,2	376.689	10,8
1	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	8.930	0,4	69.711	12,8
2	Kautxuzko pneumatiko berriak	3.227	0,3	7.493	43,1
3	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	2.993	0,9	2.993	100,0
4	Lurra prestatzeko edo hazteko nekazaritzako, baratze edo basoko makinak eta tresnak	2.734	6,4	3.618	75,6
5	Ontziak eta paketatze aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	2.043	1,1	4.182	48,8
6	Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartutxoak eta gainerako munizioak, jaurtigaiak eta horien zatiak	1.995	3,0	2.012	99,2
7	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.673	0,1	16.177	10,3
8	Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	1.129	0,2	3.079	36,7
9	Bizarra kentzeko, zorrozteko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak	903	1,5	903	100,0
10	Aluminiozko enbusturak: burdin sareak, puntak, torlojuak, azkoinak, errematxeak, larakoak eta antzeko gaiak	760	1,2	998	76,2
11	Jasogailuen, pilatzeko organen, igogailuen, nibelagailuen, hondeamakinak eta ferforatzeko makinak zatiak...	748	0,7	1.895	39,5
12	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	746	0,4	1.187	62,8
13	Bizikletak eta gainerako motorrik gabeko belozipezoak	644	0,8	648	99,4
14	Tenperatura altuko harriak mundun destilazioaren olio eta gainerakoak (Benzol, Toluol, Xilol, Naftaleno, Fenol, eta abar)	629	3,4	832	75,6
15	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	606	0,3	1.498	40,4
16	Pisatzeko aparatuak eta tresnak (> edo = 5 kg-ko pisuarekiko sentikorrak diren balantzak izan ezik) eta horiei dagozkien pisuak	600	4,0	655	91,7
17	Metal arruntzeko giltzarriak, sarrailak, morroiloak eta giltzak	536	0,3	651	82,3
18	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	499	0,0	18.879	2,6
19	Ardoa, mahats freskoarena	420	0,2	14.689	2,9
20	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	420	0,2	576	72,9
21	Artilea, belakiak, espartzuak, eskularruak eta antzeko gaiak, burdinazko edo altzairuzkoak, harrikoak egiteko, garbitzeko...	351	0,7	371	94,5
22	Medikuntza, kirurgia, odontologia, oftalmologia edo albaitaritzako tresnak eta aparatuak	332	1,6	464	71,4
23	Animaliak elikatze erabiltzen diren prestakinen motak	325	0,5	4.397	7,4
24	Arrain-prestakinek eta -kontserbak	301	0,5	1.729	17,4
25	Bero bidez materialak tratatzeko aparatuak	300	0,2	579	51,8

(p)Behinbehineko datuak


Data 2022ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Ukrainako esportazioen sailkapenean, aipatutakoez gain, honako produktu hauek ere aipatu beharko dira: “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (3,2 milioi), “*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak*” (3,0 milioi, hau da, produktu horretatik Estatuan esportatzen denaren % 100), “*Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartutxoak eta gainerako munizioak, proiektileak eta horien zatiak*” (2,0 milioi eta Espainiako guztizkoaren % 99,2 milioi).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62